



Gipuzkoako enpresa ehunaren lehiakortasuna indartzea sustatzeko programa.

VI. eranskina: sustapen sozioekonomikoaren gehikuntzan eskualde ikuspuntuaren ekarpena bultzatzea.

Urtea :2017 | Ekonomia Sustapena

DESKRIBAPENA

Eskualdeko estrategiak, gaitasunak eta dinamikak lankidetzan sustatzea, horiek lurralde, gizarte, ekonomia eta ingurumen kohesio handiago bat eratzen lagundu dezaten

ENTITATE ONURADUNAK

- Gipuzkoako tokiko garapeneko eskualdeko agentziak, beren eskualdean garapen agentziarik ez duten Gipuzkoako tokiko erakundeek, mankomunitateek eta udalek eratuak.
- Entitate onuradunen izaera, nortasun juridikorik izan gabe ere diru laguntza emateko arrazoia diren proiektuak, jarduerak edo portaerak burutu ditzaketen edo diru laguntza jasotzeko egoeran dauden aurreko atalean aipatu diren entitateen, elkarte publiko edo pribatuetara zabaltzen da.

DIRU-LAGUNTZAREN XEDE DIREN JARDUERAK

Diruz lagun daitezkeen jarduerak izango dira honelako proiektuak garatzea hainbat arlotan -adimen lehiakorra, produktuen, zerbitzuen eta negozio ereduen dibertsifikazioaren, desberdintasunaren eta balio ekarpenaren bidez-, xede hauekin:

- Kontzientziazio eta sentsibilizazio handiagoa dakarten ekintzak inplementatzea.
- Enpresek edo enpresa inguruneke eragileek osatutako lankidetzaren sareak sortu eta garatzea.
- Enpresa edo lurralde arloko gaitasunak eta balio-kateak identifikatu eta garatzea, baita horietan oinarritutako aukerak ere.

DIRUZ LAGUNDU DAITEZKEEN KOSTUAK

Diruz lagungarriak izango dira erakunde eskatzaileak aurkezten duen aurrekontu banakatu eta xehatuan jasotako kostuak, jardueraren garapenari zalantzarik gabe lotuta daudenean.

- Barruko langileen kostuek ezingo dute gainditu kostu hautagarrien % 50a, eta gehieneko kostu hautagarria 35 €/ordu izango da.
- Kanpoko langileen kostuak hautagarriak izango dira, 69,29 €/ordu gehienez.
- Zeharkako gastuak edo gastu orokorrak, kostu hautagarri gisa, justifikazio beharrik gabe, diruz lagundu daitezkeen langileen zuzeneko kostuen % 15a bakarrik hartuko da kontuan.



DIRU-LAGUNTZEN ZENBATEKOA

Diru laguntzak kostu hautagarrien %100koak izango dira.

EMATEKO PROZEURA

Lehiaketa bidezkoa, deialdi eta hautapen prozedura bakar baten bitartez.

BATERAGARRITASUNA ALA BATERAEZINTASUNA

Diru laguntza hauek ez dira bateragarriak beste edozein administrazio edo erakunde publiko nahiz pribatuk, izan estatalak, izan Europar Batasunekoak edo izan nazioartekoak, eman lezakeen helburu bereko subentzio, laguntza, diru sarrera edo baliabiderekin.

BETETZEKO EPEAK

- Eskaerak aurkezteko epea: **2017ko uztailaren 7an, goizeko 12:00etan amaituko da.**
- Jarduerak hasteko epea: **2017ko urtarrilaren 1etik aurrera**
- Proiektuen exekuzio data: **2018ko ekainaren 22a**
- Proiektuak justifikatzeko data: **2018ko uztailaren 22a**

ARAUDI APLIKAGARRIA

[Gipuzkoako enpresa ehunaren lehiakortasuna indartzea sustatzeko programa](#)

ESKAERA EGITEKO URRATSAK

- Informazioa eta dokumentuak
<https://www.gipuzkoa.eus/eu/web/ekonomia/programak-eta-laguntzak/lehiakortasuna/eskualdeak>
- Diru-laguntzak kudeatzeko aplikatiboa
<http://sustapena.gipuzkoa.eus/kudeaketa>

EDOZEIN ZALANTZA IZANEZ GERO, KONTSULTATU

JAKINTZA ETA ENPRESA JARDUERA SUSTAPENERAKO ZERBITZUA

- Kudeaketa administratiboa: 943.112227
- Kudeaketa teknikoa: 943.112217

sustapena.eraldaketa@gipuzkoa.eus